# MUKERTASUNA

## IPUIÑA

Meza nausi denporan
egusarietan
eragozten dalako
jokoa plazetan
obediu nai ez da
ordena orreri
kartzelan sartu eben
Andres pelotari
non erautsan leyotik
jayan deadarrez
ulua eriola
sututa asarrez.
Burdiña oneik nauke
zarratuta preso
erreja gogor batzuk
eurok diralako;
kaletik deutsa Paulok
laster itanduten:
—¿burdin orreik zergaitik
ni enabe lotzen?
—Alkatearen naya
dozulako eiten.
Ta onetan ara non
kanpotik beinguan
pelota bat sartzen dan
leyotik barruan
eta Paulok dirautsa
barriro orduan:
—orra lagun barri bat
or dozu onduan,
¿Ta non ibilli balitz
legien neurrian
orain aurkituko zan?
—Pelota tokian.

*Legeak zainduteko*
*ez izan mukerrak*
*an dauke hartzelea*
*bestelan okerrak.*

FELIPE ARRESE TA BEITIA.